



Martxoa 139 langabe gutxiagorekin amaitu da, eta 57.449 kontratu sinatu dira, % 23,9 mugagabeak

Urte arteko saldoaren bilakaerak erakusten du 3.157 pertsona gutxiago izan direla (-% 2,83) iazko martxoarekin alderatuta, eta saldo negatiboa izan da seigarren hilabetez jarraian


Martxoa 139 langabe gutxiagorekin amaitu zen, otsailarekin alderatuta (- % 0,13), eta 108.314 eskatzailek daude. Seigarren hilabetez jarraian, urte arteko bilakaerak saldo negatiboa izan zuen: jaitziera 3.157 pertsonakoa izan zen, iazko kopuruekin alderatuta (- % 2,83), Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako datuen arabera.

Eskatzaile langabeak 2025eko otsailean

	mar.-2025	ots.-2025	mar.-2024	Hileko bilakaera		Urteko bilakaera	
				Saldoa	% Eb	Saldoa	% Eb.
SEXUA:							
GIZONA	45.793	45.698	47.218	95	0,21	-1.425	-3,02
EMAKUMEA	62.521	62.755	64.253	-234	-0,37	-1.732	-2,70
30 URTETIK BEHERAKOAK:							
BI SEXUAK	18.763	18.542	18.714	221	1,19	49	0,26
GIZONA	9.378	9.083	9.200	295	3,25	178	1,93
EMAKUMEA	9.385	9.459	9.514	-74	-0,78	-129	-1,36
30-44 URTE:							
BI SEXUAK	30.393	30.458	32.185	-65	-0,21	-1.792	-5,57
GIZONA	11.538	11.602	12.437	-64	-0,55	-899	-7,23
EMAKUMEA	18.855	18.856	19.748	-1	-0,01	-893	-4,52
45 URTETIK GORAKOAK:							
BI SEXUAK	59.158	59.453	60.572	-295	-0,50	-1.414	-2,33
GIZONA	24.877	25.013	25.581	-136	-0,54	-704	-2,75
EMAKUMEA	34.281	34.440	34.991	-159	-0,46	-710	-2,03
SEKTOREA:							
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.938	1.960	2.101	-22	-1,12	-163	-7,76
INDUSTRIA	10.155	10.109	10.449	46	0,46	-294	-2,81
ERAIKUNTZA	5.715	5.723	6.260	-8	-0,14	-545	-8,71
ZERBITZUAK	75.934	76.599	78.294	-665	-0,87	-2.360	-3,01
AURREKO LANIK GABE	14.572	14.062	14.367	510	3,63	205	1,43
LURRALDE HISTORIKOAK:							
Araba	18.751	18.575	18.867	176	0,95	-116	-0,61
Bizkaia	61.073	61.237	62.905	-164	-0,27	-1.832	-2,91
Gipuzkoa	28.490	28.641	29.699	-151	-0,53	-1.209	-4,07
EAE	108.314	108.453	111.471	-139	-0,13	-3.157	-2,83



Langabezia datuen bilakaera martxoan

**Kontratazioa**

Kontratazioari dagokionez, martxoan 57.449 kontratu berri sinatu dira EAEn, eta horietatik 13.734 (% 23,9) mugabeak izan dira.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilak 2a